

# Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko ekainak 26 / II. urtea / 30. zenbakia

## Zubian barna



BINGEN AMADOZ

**S**an Juan urriña, onak zabal-tzazu, gaixtoren guzien onak konbertitzazu;

Sua emanda, horra dihoaz kea bihurturik baliogabeko guztiak. Sute ederra pizturik, kolore, jauzi, poza-ohiu eta doinuaz bete ohi zaigu San Juan gaua. Doinu akonpasatuak dakarzkigu gau majikoak: txalapartarenak, ezki-larenak... dardara airean utzita, sirena batzurenak era bai. Tradi-zioako doinuak onik ekarri, kotxe-ko beste horiek txarrerako datoz, ordea.

Salto-saltokan, suaren gainetik, ongi etorria eman diezaiogun udari. Aurtengo euri-jasak itzaltzen ez badu sua, eraman ditza-tela garrek paper eta arropa zahar-ekin batera urtean zehar kalte-garri gaineratu zaizkigun guziak.

Badator uda, festa-airez bete-rik. Batzuk kaleko meriendaz ha-siko dute, kezka gehiagorekin bainan, beroa ekarri beharko li-guken aroa, 'sanjanetan' ezin baita sabela hutsik utzi.

Laister ere sanferminak eta atzetik beste hainbat santu eta festa. Aurki jakinen dugu riau-riauaren auzian nork irabazten duen. Nahiago nuke nik herria garaile ateratzea eta ez alkatea. Azken finean, ba al da Astrainen vals hunkigarria entzun nahi ez duen inor.

Udalaren erabakiak ez dira ba beti gustokoak izaten, eta pairatu behar izaten ditugu hala ere. (Beno, egia esan, ahalik eta erresis-tentzi gehiena egiten diegu bat-zuri, esaterako azken isunaren ordainketari). Dena dela, urtean behin eta ordu gutxi batzuetan herri xehearen urrats dantzaria-ren atzetik mantso-mantso ibil-tzen eskatzea, horrenbesterako da?.

Hobe zenuten, udal-arduradun horiek, hain gure bihotzekoak diren erraldoi eta kilikiak Sevil-lara eramaten ez uztea. Zer egin dute gaixoek, jasan dituzten tratu txarrak pasatu behar izateko. Bi-daian kaltetu direla. Hala esan dute ahots ofizialek. Hain ofizia-lak ez direnek bestelakorik diote: Expoko segurtasun zerbitzukoek ez omen diete gure erraldoiei gehiegizko begirunerik erakutsi.



## Garai txarra nekazaritzarako

Asteburu honetan hasiko dira esne ekoizleen mobilizazio berriak Euskal Herrian, arlo hau jasaten ari den egoera larria dela eta. Aspaldidanik birziki-lapenean sartuta, emaitzak ez dira espero zirenak, eta prezioen jeitsiera izugarriak, kreditu eta azienden kostuekin batera, jasangaitz bihurtu dute egoera.

Honekin batera, kanpotik datorren esnea da gehien saltzen dena, eta Euro-pako merkatu bakarrak, luze gabe, area-gotu eginen du, dudarik gabe, arazoa.

Sindikatuak Brussetetik datozen kuotak eta enpresek paratzen dituzten

prezioak direla eta kexu dira, azken hauek erabakitzeko ez bait da inolako negoziatorik izaten ganaduzaleekin, eta askotan atzerapen handiz ordaintzen bait da esnea. Hala ere, hori eztabaida-tzea baino, nekazal politika berri baten ardatzez solas egitearen aldekoak dira ordezkariak.

Bitartean, ganaduzaleen artean, etsi-pena eta haserrea dira nagusi, baina Mikel Petirena Nafarroako EHNE sindi-katuaren buruak adierazten duenez «borrokatzeko gogoia ere badago». Garai txarra nekazaritzarako.

## Gure aukerak

### ERAKUSKETAK



**Guillermo Perez Villata** Cadizeko pintorearen erakusketa ikusgai dago Iruñean, Gotorlekuko Arma aretoan, ekainaren 28a arte. Nafarroa ekarri dituen lanak azkeneko hamabost urtetan egindakoak dira, gai desberdinekin. Artista honek sari ugari jaso ditu eta berak egindako mural bat Brusseleko Arte Ederretako Jauregiaren paretan dago.

**Luziano Martinez** pintorearen erakusketa Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalak duen Aretoan, Conde Rodezno kalean, ikus daiteke, uztailearen 5a arte. Jai egunetan goizetik bakarrik ikusteko aukera dago, hamabi t'erdietatik ordubietara, eta beste egunetan arratsaldean, 19.30etatik bederatzietara.

### ANTZERKIA



**Teatro del alba** taldea arituko da gaur, ekainak 26, arratsaldeko seietan Abaurregaineko bajera munizipalean, Nafarroako Gobernua antolatuta duen Udaberri Jira Bira kanpainaren barruan. 'Hemen ez du inor ordaitzen' obra antzeztuko dute gaurko saioan.

**Kukubiltxo** antzerki taldea arituko da bihar, hilak 27, Urdiaingo kaleetan, arratsaldeko seietan izango den saioan. Udaberri Jira Bira kanpaina honetan obra ugari antzesten ari dira Nafarroako he-

### ERRAN DUTE



*Galtzontzilorik gabe hitz egiteko kapaza naiz».*

**Joaquin Pascal**  
Iruñeko PSNko udal taldekoka

*«Datorren denboraldian atzeritarrek erakutsiko dute askoz hobekak direla».*

**Pedro Mari Zabalza**  
Osasunako entrenatzailea

*«Zenbait taldetan militantzia bikoitza egon, bada-go».*

**Patxi Zabaleta**  
HBko bozeramailea

*«Roldanekin bakarrik ez, Del Burgo eta Aizpunekin ere mintzatu zen Zabaleta».*


**Jose Luis Corcuera**  
Espainiako Barne Ministroa

## San Pedroko erronomia

Astelehenean lan egiten ez duten horietakoa baldin bazara, eta Nafarroa guztian nagusitzen ari diren festei oraindik heldu ez badiezu, astelehenean erronomia ederra ikusteko aukera duzu, Altsasuko San Pedro basoan. Hori bai, altsasuarren bat ezagutzeko, ederrago izango zaizu eguna, guztiz beharrezkoa baita koardilaren batean sartzea bazkaldu ahal izateko.

Egun honetan altsasuar guztiendako egunik hoberena da, eta baselizaren inguruko txoko guztiak mahaiak betetzen dira. Kordila guztiak badaukate zuhaitz eta txokoa aukeraturik, urte guztietan zehar erabiliko dutena, eta mahaiak eramaten dute bazkaria egiteko. Hori bai, meza ondoren, udalaren ardoa edan behar zilarrezko kizaratxoetan.

Meza ondoren, zortzikoa dantzaten da, eta bazkaldu eta gero, udalak ematen duen puro bila joateko hilara luzeak egiten



dira. Arratsalde osoan zehar festa giroaz betetzen da San Pedro, eta arrastian herrira jeisten da berriro, gogo eta indarra duenak festarekin jarraitzeko.

Hurrengo astean Urdiaingoko eguna dute festa, baseliza eta basoa bi herrien artean banaturik dagoelako, baina hori beste historia da...

rrietan barna. Urdiainen 'Jalgi hadi dantzara' antzezlana aurkeztuko dute.

### BESTELAKOAK



**Uharteko Euskararen Eguna** ospatuko da asteburu honetan Uhartan, larunbata eta igandean. Larunbatean haurrendako jokuak igerilekuan egongo dira arra-

tsaldeko lau t'erdietan eta seietan pilota partiduak jokatuko dira, eskuz eta paletaz. Beranduago txistularien alardea egongo da. Igandean, berriz, txistularik, kalejira, zanpazar, gaitero, dantzari eta Axular txarangarekin, eta ondorengo Japoniar Bonbak izango dira. Euskarazko mezaren ondoren herri kirolak egongo dira, gero bazkari herrikoia eta bazkalandean Xabier Silveira, Estitxu Arozena eta Estitxu Fernandez

arituko dira. Eguna bukatzeko, dantzaldia Agirre taldearekin zazpizetik hamar terdiak arte.

**Txirindulari martxa** antolatuta dute igande honetarako, ekainak 28, Vianako txirindulari taldeak, Nafarroa Oinezen ospakizuna dela eta. Martxa goizeko zortzi t'erdietan hasiko da Vianan, handik Mendavia, Lodosa, Sesma, Urantzia, Elizagorria, Torres del Rio, Espronceda,

### ASTEKO PERTSONAIK

#### Francis Sanchez Jara



Osasunaren fitxaketa

**B**arcelona Athleticoko jokalaria idenboraldi honetarako Osasunaren lehendabiziko fitxaketa da, eta asteazkenean egin zen Iruñean aurkezpen ofiziala. Sanchez Jara oso pozik agertu zen gorritxoekin fitxatzeagatik, eta «langile fina» zela adierazi zuen. Beste langile bat, beraz, Zabalzarendako, askotan besteren beharra nabarmentzen bada ere. Izan ere, iaz bi 'artista' bakarrik zituen taldeak —Sola eta Stevanovic—, eta lehendabizikoak utzi du taldea, eta bigarrena beste talde batera bidaltzeko irrikitan daude taldeko buruak. Iriartek burua altxatuko balu...

#### Joaquin Pascal



Iruñeko zinegotzia

**P**SN-PSOeko udal taldearen botoei esker onartu ziren asteartean Iruñeko udalaren aurrekontuak, atzerapen dezente batekin. Bozeramaile sozialista eta UPN artean negoziazioak izan ziren azken une arte, eta udalbatza egindako zenbait atsedenditan bertan berdindu ziren azken koxkak. Aurrekontuak, hamabi mila milioi pezetakoa, iazkoarekin alderatuz % 4,5ko igoera dauka, eta horren % 90 langileek, gastu fijoek eta zorrek xahutuko dute. Aurrekontu zuhurrak, beraz, eta akordio berria bi talde nagusien artean, aurrerantzean garrantzi handia izan dezakeena.

#### Iñaki Cabases



EAKo buruzagia

**N**afarroako Parlamentuko Euskara Batzordearen buruak bere gain dauka hilabete hauetan egindako lanari etekinak ateratzeko ardura. Euskararen inguruan lanean ari diren talde guztiak bildu ondoren, batzordeak bere emaitzak aterako ditu laister, eta Cabasesek berak duela gutxi azaldutakoaren arabera, hortik Euskararen Legearen aldatetaren bat etorri beharko. Talde guztiak, hain zuzen, horren beharra azpimarratu zuten. Azken agerraldian, kasu, legea «oso gutxi» esaten zuela azaldu zuten IKAKo bozeramaileek, «eta gutxi hori ere ez da betetzen».

Aguilar, Aras eta Vianan bukatuko da, 105 kilometro egin ondoren. Izena ematean 800 pezeta ordaindu behar dira, eta arau batzuk ere jarri dituzte, besteak beste, kaskoa erabiltzea beharrezkoa dela.

### MUSIKA



**Mister T. Experience** eta Girls againt Boys taldeak arituko dira gaur, ekainak 26, Altsasuko gaztetxean. Musika saio hau gabeko hamarretan izango da.

**Dismember**, Obituary eta Napal death taldeek gaur, ekainak 26, Garesko dantzalekuan abestuko dute, gabeko hamaikak aldera hasiko den kontzertuan.

**Pottoka**, Balerdi Balerdi eta Alkoholherria musikariak arituko dira bihar, ekainak 27, Erratzu herrian, beraien abestien aurkezpen modukoa eginez.

### ZINEMA



**'Hello Dolly'** pelikula famatua ikusteko aukera izango da gaur, ekainak 26, Nafarroako Gobernua antolatuta duen Zinema Musikalaren astearren barruan, Museoaren aretoan. Gaurko filma zikloaren azkenekoa da, eta bertan Gene Kelly aktore ospetsuaren abenturak ikus daitezke, Barbra Streisand, Walter Matthau eta Louis Armstrong aktoreen laguntzarekin.

### ADI !

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

#### HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9


Asteazkenean FMn 21.00etatik 22.00etara... Gautxori irratia saio musikala. Narrazioak.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.



Zenbait hondakin zakarretara botatzen dugunean, bizitza-ziklo berri bat hasteko aukera galtzen ari gara. Hondakin soliduak birziklatzeak, papera, beira, plastikoak, metalak eta abar aprobetxatzeko aukera ematen digu... beste berri batzuk egiteko. Material horiek besteetatik bereizten badituzu, lagundu egingo duzu errekurtsio naturalak hobeki erabiltzen, energia aurrezten eta ingurugiroa zaintzen.

# Birziklatzea bizia ematea da





Esne ekoizleak larri

**G**ero eta kinka larriagoan dagoen Euskal Herriko nekazaritzak betidanik izan du behi esnearen irudia, azken arrastoa balitz bezala. Hona ere, baina, aspaldian heldu zen krisia, eta

aurten egundainoko egoera txarrean daude esne ekoizleak. Prezioak 1980koak baino bajuagoak dira egun, eta ganaduzaleak itota daude, inbertsioetarako eskatutako kredituak eta

Europatik ezarritako kuotak direla eta. Bitartean, enpresa handiek, beren aldetik, eta inolako negoziatorik gabe, ezartzen dituzte prezioak. Garai txarrak, eta esnea, mindua.

## Esne ekoizleak, minduak

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Behi esnearen aurtengo prezioen beherakada izugarriak, «inoizko egoera larrienean» utzi du sektorea, ganaduzaleen esanetan. Urtearen hasieran litroaren prezioa 38,5 pezetatan zegoen, eta maiatzean 31,5etan ordaindu da. Are gehiago, ekaineko 30 pezeta agindu dute enpresek.

Honek 1980an ordaintzen ziren prezioen azpitik utzi du esne litroa, egoera gero eta larriagoa iragartzen zen unean, hain zuzen ere. Izan ere, azken urteotan inbertsio garrantzitsuak izan dira ganaduzaleen aldetik eta kredituek ito beharrean daude horietariko asko.

Egoera ulertzeko, bi ardatz



Mikel Petrirena.


JOXÉ LACALLE

hartu behar dira kontutan. Lehendabizikoa, Europatik datozen kuotak. Kuota hauek 1985ean ezarri ziren, Europa osoan zegoen produkzio soberakinei irtenbidea emateko. Horrela, urte horretako produkzioari erreparatu zitzaion, eta horren arabera estatu bakoitzari kuota bat egokitu zitzaion. Gero, estatu bakoitzak ekoizleen artean banatu zuen produkzioa.

Baina Espainiako Estatuari egokitu zitzaion kuota, kasu, kontsumitzen zen baino txikiagoa zen. Aldi berean, produkzioak gora egin du azken urteotan, baina kuotak bertan gelditu dira. Horrela, egun, Nafarroako kuota 120 milioi litrokoa da, baina produkzioa 150 milioi ingurukoa da. Hau benetako traba izan da ekoizleentzako, baina oraindik etortzeke dago larriena: isunak hain zuzen ere. 1993ko apirilean indarrean jartzen badira, iragarrita dagoen bezala, egoera jasanezina izan daiteke ekoizleentzat, 45 pezetako isuna iragarri bait da kuotaren gainetik ekoiztutako litro bakoitzeko.

### PREZIOEN BEHERAKADA IZUGARRIA

Bigarren ardatza prezioen jeitsiera izan da. Nafarroako mail goreneko 46 baserritan egindako azterketa batek azaldu duenez, baserri bakoitzak, batez beste, 45 behi dauka, eta sei mila litro esne ekoizten dira ur-



Euskal nekazaritzaren arazorik larriena da behi esnearena.

Joubet

tero behiko. Litroaren prezioa, horrela, 35,64 pezetatan gelditzen da. Ganaduzalearen lana, gizarte segurantza eta inbertsioen interesak kontutan harzen badira, litro bakoitzaren kostua 45 pezetakoa izango litzateke. Goi mailako baserrietan. Bitartean, enpresak 31 pezetatan ordaintzen ari dira litroa, Esne Industrien Federazioak (FENIL) ezarritako irizpideen arabera.

Bi ardatza hauek nahasturik, irtenbiderik gabeko ibilaldian daude esne ekoizleak. Alde batetik, prezioen jeitsiera dela eta, gero eta gehiago ekoiztu behar izan dute, kostuak estali ahal iza-

teko, eta soberakinak gero eta handiagoak izan dira. Horren ondorioz, prezioak ere merketu dira.

### SINDIKATUAK EUROPAN ELKARTURIK

Egoera larria da Europa osoan, eta horretarako Europa osoko sindikatuak ari dira irtenbidea bilatu nahian. EHNE Euskal Herriko sindikatu nagusia da, eta Espainiako Estatuaren COAG izeneko koordinakundearen barruan dago, eta European CPEn (Europako Nekazal Koordinakundea) barruan. Mikel Petrirena Nafarroako ordezkariak azaldu duenez, Europak ez

dio onik ekarri euskal nekazariari. «Hala ere, gurdi honetan gaude, eta horri aurre egin beharra dago. European sartu gintuzten sartu egin beharra zegoelako, baina beste adierazpenik gabe».

Afera honetan, dudarik gabe, gehien pairatzen dutenak ganaduzaleak dira, eta batzuen artean etsipena nabaritzen bada ere, «borroka egiteko prest» daudela dio Petrirenak. «Jendea oso erre-ta dago, dudarik gabe, baina gure ingurukoak ez dira etxean geldituzko prest. Soluziobideak bilatu nahi dituzte, itota eta minduta daudelako, eta kalean izango dira baserritarrak».



Laister protesta ekintzak egingo dira berriro Euskal Herrian.

JOXEAN GOYA

## «Gizarte honi komeni al zaio baserritarrak galtzea?»

A.B. / IRUNEA

«Arazo sozial bat da hau, eta erabaki politikoak hartu behar dira», dio Petrirenak. Azken hamarkada hauetan etengabe malda behera doan nekazariendako azken kolpea izan daiteke, Euskal Herriaren zati garrantzitsu eta ezinbestekoa izan den kultura baten ondarreko pausua.

Ekonomia datu hutsetatik urrun begiratu beharra dagoela adierazi dute sindikatuak, eta Petrirenak esne ekoizleak eta baserritarrak galtzeak ekarriko litzuzkeen ondorioz galdekatu du. «Gizarte guztiari komeni al zaio baserritarrak galtzea? Hori da galdera. Eginkizun garrantzitsua egin dute baserriek gure gizartean, oreka sozial eta ekonomikoa ziurtatzeko, eta baita kultura

eta herri baten adierazgarriak ziurtatzeko ere. Orain dagoen egoerarekin hori ezinezkoa da, eta desagertzeko arriskuan daude. Horregatik, erabaki politikoak hartu behar dira hemen, ez bakarrik ekonomikoak».

Nostalgiari ez dietela atxekitzen esan dute ganaduzaleek, eta beren birmoldaketa dagoeneko eginda, dagoenari eutsi beharraz mintzatzen dira. «Ez dugu ez beste garaiak gogoratu ez atzera egin nahi. Urte guzti hauetan jende askok utzi du nekazaritza, eta gelditu diren bakarrak ahaleginak eta gogoei esker gelditu dira. Hauen iraupena ziurtatu beharra dagoelakoan gaude».

Nafarroan, azken datuen arabera, biztanleen % 6,5 ari dira nekazaritzan, eta horietariko ia erdia 50 urtetik gorakoa da.

Esne ekoizleak larri

## Birziklapen 'basatiaren' ordezkari politikaren aldaketa

A.B. / IRUNEA

Azken urtetik hona birziklapen garrantzitsua —etengabekoa esan liteke— jasan dute Euskal Herriko abeltzainek, bereziki behi ganaduzaleek. Gero eta inbertsio handiagoak eskatu dira administrazioaren aldetik, Europako merkatura egokitzeko, eta horretarako diru edo gogo nahikoa izan ez dutenek produkzioari utzi egin behar izan diote.

Oraindik ere birziklapen hitza da erabiliena administrazioa eta zerbitzu teknikoaren aldetik, baina sindikatuak ez dute horren beharra hain garbi ikusten, eta Europako nekazal politikaren aldaketa sakonaren beharra azpimarratzen dute behin eta berriro.

«Europako nekazal politikak baserri asko ixtera behartu du, baina soberakinak ez dira inondik inora gutxitu —azaldu du Mikel Petrirenak—. Horregatik, birziklapen basatia egin beharrean, egungo nekazariaren benetako egoarekin bat datozen neurriak hartu beharko lirateke».


«Prezioak jeisten hasi ziren, eta Europako merkatura egokitu

beharra azaltzen ziguten administrazioetik. Jende askok inbertsio handiak egin zituen orduan, ikuilu berriak, tresneri berriak, eta abar, baina prezioak oraindik gehiago jeitsi dira azken urteotan. Orain jendea itota dago, haserre, eta prezio hauekin ezin dugu ezer egin, 80ko prezioak ezartzen ari bait dira enpresak».

### ADMINISTRAZIOAREN ALDETIK PARTAIDETZA

EHNE sindikatuen proposatutako neurriak aurrera eramateko Administrazioaren partaidetza beharko litzateke. Izan ere, bere proposamena ganaduzaleei laguntza ekonomikoan oinarrituko litzateke. Horretarako esne litrotan kuota jakin bat ezarriko litzateke, eta kuota hori aurrera ateratzeko kostuak, enpresak eta administrazioaren artean banatuko lirateke.

Kuota horren gainera produktzeko ahalmena duen merkaturaren prezioarekin jokatu beharko luke. Honen bidez, sindikatuaren ustetan, soberakinaren arazoa konponduko litzateke.



**ESNE** produkzioak gora egin duen bitartean, ganadu buruek ez dute aldaketa handirik izan. Datu hauetan —Nafarroako Gobernuaren Estadistika Zerbitzuak argitaratutako azkenak— ikus daitekeenez, esne produkzioak gorakada garrantzitsua izan du.

hamar urte hauetan, egindako inbertsio eta lanari esker. Prezioek, beste aldetik, alderantzizko ibilbidea egin dute, eta egoera jasangaitza da. Hain zuzen ere, iazko produkzioa ere 150 milioi litro ingurukoa izan zen, Nafarroari dagokion kuota soilik 120 milioikoa bada ere.

mintzoak

## Heldugabeok

● Zail dago hemen horrelako gizarte batean bizitzearrekin konforme ez dagoenarentzat. Ostiak nonahi eta auto dotoreak, etxea erosi edo egin beharra, norbait bilatu beharra eta abar. Zail oso zail. Lehendabizi prezioak den gizaki edo emakume batek egin beharreko lehenbiziko gauza: lan fijo, alegia, ez etorri epeko kontratu horiekin ez dago zer eginik, bidaltzen zaituzte eta... akabo etxea, emaztea, eta abar luze guzti horiek. eta horrela ateratzen da eguneroko, malkarrak begitan dituela, aurpegia ezin garbituz, gorrotatzen duen lan hori egitera, eman dezagun Nafarroako kontratua edo kixuskila, gaur bertan kanporatuko dutelako susmoa buruan. Bizitza puta honen kontra kristonak eta beste botaz, madarikatua, jada ez dago gizartearen gunean zeozer egin nahi badu bizitza honetan espabilatu egin beharko du bestela...

eta bigarren eskuko auto horrek bidertzean botata utziko duela jakinik sakonago sartzen zaio kanporaketa susmoa, bai bait daki berandu ailegatzeko deneko laugarren aldia duela eta noski produkzioak ez du barkatzen. Gainera autoak badaramatza laupabost hilabete garbitu gabe eta kiratsa jasanezinak, herio harturik ondolik iragaten duten turbo eta 16 balbula guztiak berriro ere gogoratzen diote ez duela zer eginik.

hirugarren. ez da ezkondu eta adinak aurrera egin ahala, zoztertan okertu dela abisatzen dio egunerokotasunak, nola utzi dituen xahutzen alkohola eta kanutoen furingera ilaunean erretratu desitxuratua egiten duten urte guzti horiek. Amak noiz ezkonduko den galdetzen dio, eta berari, ustekabea, duela urte batzuta pentsatutako gauza guzti horiek etortzen zaizkio gogora, zeren iraultza sexualaz, Euskal-Herria eta langileria askatasuna aldarrikatzen horietakoa bait zen. Orain dena dela bere duda-mudak ditu baina... hala ere eta beti beti hemendik aurrerako galderek puntu suspensiboz nagusitzen zaizkio buruan.

Enfin zabor kontzientzia hedatzen zaiola gorputz guztian zehar zigarroaren nikotinarekin batera. Entzuten ditu bai baikortasunaren aldeko diskurtsoak baina nazkatu egiten dute, galtzaileen aldeko izanen da beti, hori du kontsolamendu bakarra.

lau. bikoak uztear izateak halako urduritasun bat sortzen dio. Atzera begiratzen ari da ikasten, lehen noski egiten ez zuena. Aurrerantz ordea halabeharrez egiten du, baina ikasi esaten dena ikasi, ez du ikasi. Makurrena da inoiz ikasiko ez duela, ia zihur dagoela, ze bestela zer ari da kuntza horietan bizitzen, etxea alokatuan, soldata hilabete erdira iris-

ten ez zaiola, bikotearekin haseurretuta edo bikoterik gabe, gizenkeriak atorretik nabaritzen zaizkiola.

bost. Eta jantzi nola jantzen da: zaborretik ateratako arropaz dirudi. Golem zineen inguruan nahastean diren Adolfo Dominguez, Armanieta bost mila pezetako orrazkeren ondoan baldres ematen dute bera motots tximatsu eta mahoizko galtzek. Horrelakoetan, lotsak eraginda edo, bere burua gehiago zaindu behar duela esaten du bere baitarako, hurrengo unetan inguratzen dituenak simple huts batzuk besterik ez direla erabakitzeke. Plastikozkoak ematen ditte.

eta lotsa zena zabor kontzientzia, eta zintzurra estutzen dion erresumina bilakatzen zaio.

ondotik iragan diren aldemenek arakatu nahi balute bezala begiratu badute ere berak, gorrotz bete, begiradari eutsi egin dio. zer bestela horrelakoekin ez zeok zer eginik, esan dio ondoko lagunari. Eta gutxi ez balitz denek gustoko duten filma eskasa eta merkea iruditu zaio. amerikarra errusian filmatua izanagatik.

seigarren. lagunak ere bere gisakoak ditu. batzua gartzelan egondakoak, besteak egon ez badira ere gose greba eta presoan egoeraz kezkatu egoten dira. hau dena, noski, aurpegian edo nabaritzen zaio eta Guardia Zibi-

laren kontroletara afiliatua egoten da, horrelakoetan Hertzainaren bere garrietako kantu zahar hura gogoratzea besterik geratzen ez zaiola. Guardia Zibilari Elkartasuna hitzak oraindik balorea baduela esatekotan izaten ohi da, baina zertarako beren eskutan ordu gehiago pasatzeko bidea besterik ez dela badaki.

zazpigarren. Exporen erabat kontra dago. telebista ikusten duen gutxitan ondokoari egiten dio garraisi aurkezleak esandakoarengatik, ondokoak bera erabat kontra dagoela esaten dion arte; orduan konturatzen da kaxkartzan ari dela eta hori... atzera berriz puntu suspensiboak nagusitzen zaizkio buruan.

zortzigarren. Demokrazia hitza entzuteak goragalea ematen dio. hortara, jada, aisa galduta dauka gizartearen gunea izateko beharrezko diren merzimenen zerranda eta paperik ezean tokatu zaion, beharrik dio berak, zokorik ilunenera baztertuta aurkitzen du bere burua, dagonean dagoelako harrizteke, amaren ez fundamendu gutxiko jendearen zuloa. hutsaren urrengo.

Gisa horretan hurbiltzen zaie ohekidegaiei, gehienak gai izatetik kide izatera pasatzen ez direnak, euskaraz ligatzeko asmoz. mahoizko galtza eta kamiseta errebindikatibo batekin jantzirik, begietara begiratzen ditu,

arropetara gero, eta zenbat eta arropa eta orrazkera garestiago hainbat gehiago desiratzen ditu. ez pentsa ez, gizartearen baloreek telebistaturik daukatenean arabera gutxiturik sentitzen denik, ez. berak aski ongi daki, hori da geratzen zaion arma bakarra, non dagoen eta zein den bere lekua, ez, igualez igualera mintzo zaizkio, bigarren esku autoan igo-tzen ditu eta beren etxe zikin eta merkera eraman, han, mendeku emearen zapo-re gozoa dastatzeko.

Gontzal Mendibil edo Mikel Laboaren diska zaharrak jartzen dizkio, eta beren gaztaroari buruzko ikerketa sakona bezain zehatza egin ondoren sailkatu egiten ditu Europa, moda eta aldaketek sortutako tipologia berezi baten arabera. horrela kama-leoia bezain aldakorra den birziklatua edo jantziaren azpian ezer gordetzen ez duen funtzionarioa, edo 16 balbuladuna edo bizitzak emandako jirabiren gainerik euskalduna segitzen duena eta abar eta abar.

gero bai gero, ohean etzanik edo zutik, tipologiaren arabera... puntu suspensiboz betetzen zaio gorputza.



## Bazteendako Zokoa

**Erregetxo bekainzuria**  
*Regulus ignicapillus*  
Koniferak ditu gustoko  
Nafarroa osoan, Erri-  
beran izan ezik



### Hegazti txikiena

Bere izena buruaren gainean daramatzen lumei zor die txoritxo honek, oso bitxi eta ikusgarriak denak. Hala ere, bere tamaina dela eta, ez omen du errege izaterainoko ohorea izan, eta erregetxon gelditu da. Izan ere, Nafarroako hegaztien artean espezierik txikiena bait da erregetxo bekainzuria (8-9 zentimetro luze eta 4,5-5 gramo bitarteko pisua).

Mendi-erregetxoaren antzerakoa, marra txuri bat du begien gainean, eta beste bat beltza, begiak zeharkatzen dituena. Lepoaldea laranja eta horia du arrak, eta laranja soilik emeak.

Askotan biltzen da bere espeziekiekin: kaskabeltzak, txioak, gerri-txoriak eta abar. Beraikin batera zeharkatzen ditu baso eta oihanak, eta bere elikagai nagusia intsektu txikiak dira, zuhaitz eta adarren artean dabilzan horietakoak.

Udaberri aldera txofrakia paratzen du, zintzilik, pinu edo koniferaren batean, eta horretarako goroldioa, belarra eta armiarmasareak erabiltzen ditu, hostoekin batera.

Oso zabaldua dago Nafarroa osoan, Erriberan izan ezik. Halaber, zuhaitz mota guztietan aurki daiteke, baina gogokoak ditu koniferak, izei eta pinuak bereziki.



## Animalien migrazioak

### ORREAGA BARBERENA

Animalien migrazioak betidanik sortu du jakinmina gizakumearengan. Animaliak urteko garai zehatz batean desagertzen dira baina gero berriro bueltatzen dira. Antzinean, jendeak uste zuen beste animalia bihurtzen zirela edota lurperatzen zirela eguraldi txarra ez jasateko. Gaur egun asko dakigu migrazioari buruz.

Bidaia hauek misterio asko dituzte eta gizakumeak ez dira inoiz gai izango horiek ezagutzeko. Migrazio hitzak leku batetik bestera joatea esan nahi du, eta hori da animaliek egiten dutena.

Animaliek hainbat bidaia egiten dute bizitzeko baldintza hoberenak aurkitu arte. Negua da beren etsai nagusia, horregatik neguan animaliak toki epelen bila joaten dira. Neguan bi gauza egiten dute: bertan geratu eta hoztari aurre egin, edo beste lurralde epel batzuetara emigratu.

Animalia guztiek ez dute migrazio egiten, batzuek neguari aurre egiten bait diete. Era guztietako bidaiak egiten dituzte, urterokoak, hilerokoak nahiz egu-

nekoak. Zeintzuk dira emigratzen duten animaliak?

Migratzaile garrantzitsuenak hegaztiak dira. Hegaztiak aparte animalia asko dira migratzaileak. Hegaztien atzetik garrantziari dagokionez, arrainak dira, eta itsasotik atera gabe baleak, fokak, eta arrain mota asko ditugu.

Dordokak ere itsas migratzaileak dira eta ikaragarriko bi-

daiak egiten dituzte. Itsasotik atera eta lehorrera joaten bagara, ugaztun belarjaleak dira migratzaileak: bisontea, karibua, antilopeak, eta elefanteak, beste askoren artean. Ugaztunen artean migrazio luzeenak egiten dituzten animaliak saguzaharrak dira. Azken taldean ornogabeak daude: tximeletak, otiak, karramarroak, otarrainak...

## Mendia ikusgarria

### AITOR BURGUETE

Eguraldia eguzkitsua baldin bazen ere, egun freskoa zen hura. Hodeiertzean hodei txuri batzuk ikusten ziren, eta aurrean mendia. Mendi hura benetan malkartsua zen, izugarriko maldak zituen.

Han zuhaitz eta zuhaizka mota aunitz daude. Beheraldiko parte gehiena pinuak dira. Badago ere intxaurrondoren bat. Gorago joan ahala pinuak desagertu eta arteak nagusi egiten dira paisaian. Ezpelek ere paisaiari kolore bereziak ematen dizkiote. Nahiz eta beren neurriagatik ez nabarmendu, haien usainek be-

ren presentziaren berri ematen dute: izpiliko, ota, eta toma dira. Bidean, usainarekin alaituko gaituzte.

Animaliak ere ez dira falta mendia honetan. Urtxintxak, basurdeak, putreak, txori mota desberdin asko, mendiari izugarriko bizitasuna ematen diote.

Baina mendi honek badauka beste batzuek ez duten zerbait: kobazuloa, alegia.

Toki berezi hau aurkitzea benetan zaila da, sarrera zuhaizka multzo batek ezkututzen duela. Behin aurkituz gero, baina, naturaren nahikarietaz gozatu ahal izango duzu.



### BASAJAUN

Gure hiriak nahiko handiak dira, eta daramagun bizitzarekin egunero toki batetik bestera joan behar dugu. Hori oso era ezberdinetan egiten dugu: kotxez, txirindulaz, oinez, autobusez. Ekologian ere garraibideek eragin eta garrantzi handia dute, errekin gehienak oso kutsatzaileak direlako.

Hori dela eta, hain gustokoa dugun kotxea leku guztietara eramanean beharrezko badaude beste alternatiba franko, denak askoz ere ekologikoagoak eta osasungarriagoak denontzat.

Ibilbide motzetan, kasu, oinez joateko ohitura hartu beharra daukagu, gure gorputzean dauden soberazko kaloriak botatzeko, alde batetik, eta atmosferari laguntzaren bat emateko, bestetik.

Lantokira eta joateko, garraio publiko erabiltzeko aukera ere badago toki askotan, bereziki herri handietan. Gainera, kotxeak ez dauka beste garraioek dituzten abantailak.

Hori bai, kotxea askoz ere erosagoa da, baina erosotasun horrek kalte handiak ekartzen ditu: kutsadura, lurrazpiko aparkalekuen eragin ekologikoa —hirietako gruyeren irudia—, eta beste arazo asko. Txirindula erabiltzeak ere kutsadura akustikoa gutxitzen du nabarmen.

Azken urteotan, hain zuzen ere, hiriak, gizakientzat izan baino, kotxeentzat eginak direlako irudia hartu daiteke, leku askotako hirigintza egitasmo gehienak horretarako moldatuak bait daude. Berriro berreskuratu beharko ote dugu ekologisten lema zahar hori: 'Biziz bizi'?

Ausartak izan gaitezen, bada: oinez ibil gaitezen!

## KAZKARROAN

### Jenero Xumekoak

□ Klaus Kinski eta Aranoko bere neskaren oroimenez Nola bukatuko ote zen historia hura? Izango ote zen seme-alabarik Klaus Kinski eta Aranoko neska surrealista hura aita-ama zituztenik? Edo haize bolada gaixto batek lekutu ote zituen betiko, Edgar Allan Poe eta Maribel Lee legez?

### JUANTXO URDIROZ

## KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoan Baztanenjasotako esaera zahar bat ageriko zaizu.

1. Zurginaren tresnak
2. Maingu
3. Sagardotarako barrika
4. Iparraldeko ibaia
5. Ibai gaineko igarobideak

B	7	D	2	A	5	D	6	B	4	D	8
D	3	A	9	A	3	D	5	D	10	B	3
B	5	A	2	B	9	B	10	B	11	D	4
A	1	D	7	A	12	A	4	D	11	B	2
A	10	B	1	D	1	A	6	B	8	A	7

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
A												
B												
D												

N-32

## Zaharrak berri

Zurginaren etxean eskailera zaharrak.

Lanbide askorekin gertatzen da.

Labaien

Ez du horrek iturri txarra!

Hiztun eta berritsu denari esana.

Goizueta

—Ezkonduta al zaude?

—Ezkonduta egongo ez naiz ba! Neu baino zaharrago den seme bat badaukat behintzat eta...

## Bizi Bizian

# Lizarrako euskaldunen elkarte


PATXI ULAIAR / LIZARRA

Lizarrako Ikastolako Kirol-Kultur Elkartearen lokala duela bi hilabete eskas zabaldu zen ikastolan bertan dagoen eraikinean. Aspaldiko gogoa ikastolarentzat, 415 bazkide ditu dagoeneko, gehienak ikasleak, ikasle ohiak, gurasoak eta irakasleak: Lizarrako elkartetik handienetakoa bazkide kopuruari dagokionez, hain segur. Ikasle ohiak eta ikasleendako bereziki sortua, biltzeko tokia izan dezaten, hain artean izan duen erantzun onaren lekuko, batzorde iraunkorraren osaketa: zazpi partaidetarik, lau ikasle ohi dira.

Elkartea ikastolan lanean dihardutenen betiko ametsa zen, 1980an lehendabiziko promozioa atera zenekoa, hain zuzen. Rafa Sanjurjo irakaslea eta elkartearen bultzatzailetakoak azaltzen duenez, orduan ikusi zen ikastolatik atera ondoren ikasleak biltzeko ekintzak bilatu beharra zegoela, eta kontutan hartuta orduko ikasle kopuru txikia —sei ikasle—, mendi taldeak eta antzeko ekintzak aukeratu ziren.

Hau izan zen joera, 1985 urtera arte. Orduan ikasle kopuruaren gorakada handia izan zuen ikastolak —urte hartan 32k amaitu zuten zortzigarren maila—, eta ikasle ohiaren elkarte sortzeko lehendabiziko pausuak ematen hasi ziren. 1986ko irailean osatu zen lehendabiziko batzordea, eta 1987ko udaberrian izan zen batzarre nagusia.

**MOTA** Lokala azken  
**GUZTIAK** urratsa zen, bai-  
**EKINTZAK** na bitartean ez  
ziren, ez horixe, olgetan aritu.



Ikastolaren eraikin berriarekin gauzatu zen elkartearen asmoa.

Ekintza ugari eta talde asko sortu dira urte hauetan, eta bizitasuna aparta izan da ikastolan. Horrela, emakumezkoen eskubalo taldea sortu, mendia taldeak bere irteereri eutsi, eta 'Amaigabe' taldea eta Ereintza abesbatza osatu ziren. Azken hau ikastolatik bereiztu zen, izan zuen arrakastagatik (egun 60 partaide ditu).

Bitartean astialdiertarako begiraleen talde bat sortu eta Ikasle Ohiaren Eguna finkatu zuten. Aurten izan da seigarren edizioa, 200 lagundik gorako partaidetzarekin.

Eta orain elkartearen txanda izan da, azkenean. Asteburuetan zabaltzen da, arratsaldeko zazpiak arte, eta ping-pongnean jokatzeak aukera, musika aditzeko toki lasaia eta udan eguzkia hartzeko terraza badute bertan. Yolanda Garin lokalaren arduradunak azaltzen duenez, emaitzak «oso politak» izan dira lehendabiziko garai honetan, eta jendea elkartera hurbiltzeko ohitura hartzen ari dela dio. «Gainera, ez



Garin ahizpak eta Rafa Sanjurjo, elkartearen.

PATXI ULAIAR

dira soilik ikasle ohiak etortzen —zehazten du bere ahizpa Egiartek—, bere koadrilakoak ere agertzen ohi dira. Hori bai, denek badakite zertara datozen».

dira soilik ikasle ohiak etortzen —zehazten du bere ahizpa Egiartek—, bere koadrilakoak ere agertzen ohi dira. Hori bai, denek badakite zertara datozen».

## Ertainetan euskaraz matrikulatzeko kanpaina burutu berri da Sakanan

P.U. / IRUNEA

Datorren ikasturtean Sakanan lanbide heziketak euskaraz egin ahal izateko kanpaina burutu berri dute Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, Altsasuko Lanbide Heziketako Institutuak eta Guraso Elkarteak. Gaur arte ikasketa ertainak euskaraz Altsasuko BBBko Institutuan soilik egin daitezke, eta beste ikasketa mota aukeratu ahal izateko eskualdetik kanpo atera behar dute bertako ikasleek.

Kanpainak, berez, bi helburu zituen. Batetik, euskaraz egin daitezkeen ikasketa ertainei buruzko informazioa ematea, eskutitzen bidez, eta, bestetik, Altsasuko Lanbide Heziketarako Institutuan euskarazko adarra ezar dadila eskatzea. Ikastetxe

honetan hiru arlo daude aukeragai: Zurgintza, Administratiboa eta Elektrometala, baina ikasketa guztiak erdaraz egiten dira. Hori dela eta, euskaraz aritu diren Sakanako ikasleek, Altsasuko Institutura, BBB egitera, edo Aguirerainera joan beharra daukate beren ikasketei segida emateko. Aurten 150 ikasle inguruk amaitu du Sakanan zortzigarren maila euskaraz.

**IKASLE** Euskarazko  
**KOPURUAK** adarra para-  
**EZTABAIDAGAI** tzeko gutxie-

nezko ikasle kopurua eskatu du beti administrazioak: 25 ikasle gelako, hain zuzen. Kanpainaren antolatzaileak, Arbizun emandako prentsaurrekoan, baldintza honen kontra agertu ziren, beste adarrak sortzeko irizpide berdi-

nak ez zirela jarraitzen argudiatuta. Azaldu zuten, Zurgintzan —Nafarroan dagoen eskola bakarra— sei ikaslekin talde bat sortu da aurten. Halaber, Sakanan kopuru desberdinak erabiltzea eskatu zuten, beste aldeekin —Iruñerria kasu—, dauden populazio desberdintasunak direla medio.

Kanpaina honen barruan, mozioak aurkeztu dira udal, ikastetxe eta guraso elkarteetan, euskarazko adar hau eskatzeko, eta, kasu, hamar dira dagoeneko oneritzi eman dioten udalak: Arbizu, Iturmendi, Ergoiena, Ziordia, Lakuntza, Urdiain, Bakaiku, Etxarri-Aranatz, Olazti eta Irañeta. Orobat, Etxarri, Uharte, Lakuntza eta Irurtzungo eskola, Altsasuko Lanbide Heziketarako Institutua eta Etxarriko Eskola,



Etxarri-Aranatzko ikastola.

eta Irurtzungo eta Etxarriko eskolentako Guraso Elkarteak ere eskaeraren alde agertu dira.

Honekin batera, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko ikuskatzailearekin bilera egin zuten, baina bertan ikasle kopuruaren traba berretsi

## Ikastolaren 'sekretua'

P.U. / LIZARRA

Gaur egun arte egin den Nafarroa Oinez hobereana, ikastola dotore eta berri berria, gero eta matrikula kopuru altuagoa, Lizarran bertan eragina eta ospe handikoa... Dudarik gabe, Lizarrako ikastolak badu arrakasta.

Honen 'sekretua' ikastolaren inguruan dabilten taldeen inplikazioa da, Rafa Sanjurjok adierazten duenez. Hain zuzen ere, matrikulazioa egiteko orduan, gurasoei argi eta garbi adierazten zaie ikastolak dakartzen lan eta ardurak, «hori bait da, hain zuzen ere, heziketa modernoa: gurasoen inplikazioa lortzea».

Aldez aurretik egiten den lanari esker, ez da falta laguntzailerik antolatu nahi den zernahi ekintzarako, eta ikastolaren eskuetatik sortu da Lizarran ospe eta onerpena duten zenbait ekintza: Olentzeroa, Ageda Deuna, kanpaina bereziak eta abar.

Ikasle ohiak erakartzeko, oso garrantzitsua izan da, ikastolaren garaia amaituta zerbait egiteko proposamen zehatzak eskura izatea: mendi irteerak, lehiaketak, txoko bat patxadan biltzeko. Yolanda adierazten duenez, «Lizarran ez dago beste ikastetxe hori eskeintzen duenik, eta horrek erakartzen du jendea. Gainera, hau da euskaraz aritzeko aukera bakarra».

Hori da, hain zuzen ere, txokoaren azken helburua. Eta betetzen ari dela dirudi. «14-15 urtetako jende asko ikusten ari gara hemen, eta hori pozgarria da benetan, adin horiek oso zailak direlako. Helduago izanda, jendea itzultzen da, baina ikastolatik atera berriak, nolabaiteko 'askatasuna' sentitzen dute batzutan, eta urrutzen dira. Horregatik, haien zuzen dago zuzen-duta txoko hau».

# Patxi Atzoki

bibolingilea

**E**skuz lan egiteko langileak gero eta gutxiago diren honetan, eskulangintzan hasia den gaztea topatzeak arraro xamarra iduri du. Are arraragoa, ohartzerakoan Patxi Atozkik, eskuez baliaturik, egiten dituen gauzez. Hots, bibolingintzan dihardu, eta, duela zenbait hilabetetik honat, lanbide horretatik ogia irabazten saiatzen ari da, Iruñeko alde zaharrean, noski. 29 urteko iruinxeme hau Jarauta karrikako tailerrean harrapatu dugu, mandarra jantzirik lanean, lanabes eta bibolinez inguratutik.

E. DIEZ DE ULTZURRUN / IRUÑEA

**EGUNKARIA.**— Zuk maisu ikasketak eginak dituzu, eta aritua zara eskoletan. Zer dela eta, eskola utzi lanbide honetan abiatzeko?

**PATXI ATOZKI.**— Lehenago maisu nengilena, bai, eskoletan, eta orain dela hiru urte hasi nintzen beste zera honetan. Alde Zaharreko zurgin batekin lanean hasi nintzen, kutxa zaharrak egiten eta zura lantzen, eta benetan gustora hartu nuen egurrekin ibiltzeko asuntua. Bestalde, musika ere gustokoa izan dut beti, klarineta eta kitarra jotzen banekien, eta bururatu zitzaidan hau egitea. Beraz, dauzkadan bi zaletasunotan batera aritzeko bidea ekarri dit lutheriak edo bibolingintzak.

**EGUNKARIA.**— Dena den, hala ere lanbidean aritzeko bibolingileren batengandik ikastea litzateke onena, ofizio zaharretan bezala, ala ikasketarik ba al da?

**ATOZKI.**— Bai, badira, Bilbon. Duela gutxi hasi dira, kanpoan ibilitako batek jarri zituen eta lau urte dira. Beraz, maisu lana utzi eta Bilbora jo nuen bibolingintzaren eskolan aritzeko.

**EGUNKARIA.**— Ikasketa horietan garrantzia handia izanen du alde praktikoak, noski, norberaren trebezia lantzeko, eta horrekin batera, bibolina bera jotzen ikasi behar izanen duzue.

**ATOZKI.**— Akustika arras inportantea da, fisika akustikoa. Hau da, bibolinak nola izan behar duen, neurriak, zurak, zuren ezaugarriak bibolinak egiteko, nola landu, taxutu, osatu, itsasi, eta hori dena. Hortaz gain, jakina, jotzen ikasten da, nolako soinua

bota behar duen jakiteko, musika ere bai, eta esku lana, inportanteena.

**EGUNKARIA.**— Bilbon ikasketak eginak dituzu, beraz. Baina Europako zenbait tokitan ibili zara eta Italian, bereziki, bibolingileen etxeko aldaba jo duzu...

**ATOZKI.**— Bai, Cremonan izana naiz bertako bibolingile batekin. Kontuan izan eskola famatua izan zela, Cremonan lanean aritu baitzen Stradivarius, besteak beste, eta gaur egun bada eskola eta luthier asko. Hango batekin izan nintzen barnizak aztertzen eta ikertzen eta oso interesgarria izandu zen. Gero Alemanian eta Txekoslovakia aldean ere ibilia naiz, asko ikasten baita muturra sartzen ahal duzun tokietan, eta aukera dudalarik, abiatzen naiz Europako bibolingileengana.

**EGUNKARIA.**— Dena den, bibolina egiteko eskola ezberdinak dira, ala eskuz egiteko era, moldeak, bera da, gutxi gora behera, leku guzietan?

**ATOZKI.**— Ez, ez, bibolin guziak desberdinak dira eta soinu diferentea botatzen dute. Badira eskolak Italian, Frantzia, Alemanian, eta bakoitzak lan egiteko era ezberdinak eta ezaugarri zehatz batzuk baditu. Bibolina eskutartean darabilzula, asko ongi badakizu non eginga den, kolorea, neurria, edota soinua dela medio. Alde horretatik esan ohi da bibolinak baduela zer ikustekorik hizkuntzarekin. Esate baterako, Italiako bibolinak soinu garbikoak dira, italiara oso musikala delakotz; Espainiako bibolinak ere soinu garbia botatzen dute, hizkuntza garbia bait da; Frantziako bibolinak, aldiz, su-



Jarauta kaleko bere tailerrean.

JOXE LACALLE

## «Bibolina eta hizkuntza bat datoz»

durereko soinua dute, hizkuntzak ere hala duelakoz, eta Alemaniakoek oso soinu gogorra, hizkuntzaren araberakoa.

**EGUNKARIA.**— Zuek noski, bibolinak eskuz egiten dituzue, baina merkatuan dauden bibolin guztiak ez dira bibolingile trebeak emaitza izanen. Fabrikantekin egindakoak ere izanen dira.

**ATOZKI.**— Badira, baina bada sekulako alde fabrikako moldeak eta eskuz egiten diren artean. Bibolinak lan handia dakarkizu, lan astiro eta poliki egin behar da, egurra ongi landuz, eta egile bakoitzak zer edo zer ematen dio bibolinari, ikasitakoaren zerbait. Fabriketan, aldiz, rosilikal bezala egiten dituzte, eta alde handia da, zinez.

**EGUNKARIA.**— Beraz, denboraren aldetik, denbora handia hartuko du bibolina egiteak, eskuz bederen.

**ATOZKI.**— Esan daiteke bizpahiru hilabete egin daitekeela. Luthier batzuek aunitz egiten dituzte, oso abudo lan egiten dutelakoz, horretara jarriak baitira, eta behar hainbateko trebezia izanez gero, akaso egin ahal izanen dute hilabete bat... behar bada. Beste batzuek, ordea, urtean lau egiten dituzte.

**EGUNKARIA.**— Bibolin egiteko prozesuan zein da hasierako lana?

**ATOZKI.**— Lehenengo egur puska ongi hautatzea, zurezkoa baita bibolina, noski. Zur mota ezberdinak erabiltzen dira bibolinaren alde ezberdinetarako. Kutxaren sabela, aurrekaldea, beti izeiez egiten da, izei gorriez, Alpeetan dagoena. Alboak, atzekaldea, gorputzaren atzekaldea eta lepoa astigarrez egiten dira. Beste alde batzuk ebanizkoak, gakoak esate baterako, edo ezepelekoak. Barrenean badira zati batzuk, eta beti ere erabiltzen ditugu pisu arineko zurak: sahasa, ezkia, izeia, lertxun beltza...

**EGUNKARIA.**— Zuhaitza bota ez beste gainerako guziaz egiten duzue, beraz. Egur puska erabiltzeko begi zuhurra eduki beharko da.

**ATOZKI.**— Onena da, noski, zerrorrek egur puska hautatzea. Kontutan hartu behar da ea ongi moztuta ote den, behar den garaian, idortua ote den. Nolanahi ere, European zehar badira zerrategiak, espreski soinu tresnatzako zurak prestatzen dituztenak. Eta horietaraino joan behar eta hantxe aukeratu. Han daude moztuak eta zatika, behar den bezala. Normalean bibolingileek zenbait urtez gorde egiten dituzte, etxean, hobeki idortzeko. Izan ere, sekulako garrantzia du ongi idortua izateak.

**EGUNKARIA.**— Bibolina arku

tresna da, eta arku egiteko, zuraz gain, beste materialik ere erabili behar duzue.

**ATOZKI.**— Bai, hilea, zaldi hilea. Dena den, zura diferentea da, pernanbukoa baita, Brasilgoa. Orain oso garestia da, Brasilen oso gutxi baita eta hango gobernuak babestzen duelako. Haria, zaldi hilea da, eta onenak Mongolia eta Siberiatik ekartzen dituztenak, hile finak eta gogorrak baitira. Esan behar da ere zaldiak beti arra behar duela izan, ez emea. Emeak pixa egiten du isatsan eta hileak erre egiten ditu.

**EGUNKARIA.**— Eta bezerorik ba al da?

**ATOZKI.**— Bada, bai. Oraindik gutxi, hasi berria naizelakoz. Pixkanaka pixkanaka etorriko zaizkit, nik uste. Dagoeneko, bibolin bat oso osorik eginga dut, eta orain biola egiten ari naiz.

**EGUNKARIA.**— Eskuz eginga denez, denbora handia hartzen duenez, ederki kobratuko duzu.

**ATOZKI.**— Fabrikantekin egindakoak merkeak dira, txarrak direlako. Badira zaharrak, duela ehun urte egindakoak. Kontutan hartu arku tresna hobetu egiten dela urteak aurrera joan ahala. Soinu tresna benetazko arte lana da, eta beraz, fabrikakoak berrogei mila pezetatan dira salgai, eta eskuz egindakoak hirurehun mila edo milioi erdiaren inguruan dabilta.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERBA

